

01 LARRAÑA KZT

Egileak:
Hasierako Lanbide
Heziketako ikasleak



Elkarrizketak

Albisteak

Erasmus

Kronikak

Zehar Errefuxiatuekin

2025eko martxoa

LARRAÑA KZT

01
Martxo

1

Ikasleak ezagutzen

2

**Zehar
Errefuxiatuekin.
Elkarrizketa**

3

**Albisteak. Saturio
ibaian barrena**

4

**Kronika. Egun bat
Yismelth-ekin**

5

Langileak ezagutzen

6

**Nora joango zara?
Erasmus programa**

IKASLEAK EZAGUTZEN

ELKARRIZKETA

Maddi Barrocal 19 urteko Bergarako pilotarriari egin diogu elkarrizketa, bere kirol bizitzaz aritu gara eta ikasketak eta kirola nola uztartzen dituen aipatu digu.

Zein kirol egiten duzu eta noiztik praktikatzen duzu?

Pelotan jolasten dut, 6 urte nituenetik.

Zergatik aukeratu zenuen kirol hori?

Txikitatik maiten dudan kirola da, nire aitarekin asko ikusten nuen eta horregatik gustatzen zitzaidan horrenbeste.

Nolakoa da zure asteko entrenamendu bat?

Asteazkenetan Latasara (Nafarroa) joaten naiz entrenatzera, bertan teknika lantzen dut batez ere. Honez gain, posturak, indarra...lantzeko Urretxuko Salto Trainingera joaten naiz.

Zaila izan da bidea?

Ez da bide erraza izan. Mutil asko eta neska gutxiko kirola izan da, eta neskek adin batetik aurrera utzi egiten zuten.

Zer da zuretzako txapelketa baten alderik zailena? Eta onena?

Alderik zailena partidutan duzun mailarik onena eman beharra izaten da eta onena beriz disfrutatu egiten dudala, niri gehien gustatzen zaidana egiten dut eta oso ondo sentitzen naiz.

Zer ikasten duzu Larrañan?

Egokitzen fisikoko goi mailako zikloa ikasten ari naiz.



Maddi ikastetxean

Lotuta daude zure ikasketak, praktikatzen duzun kirolarekin?

Egiten ari naizen zikloak zerikusia du kirolarekin, beraz, baita pilotarekin ere.

Zeintzuk dira zure helburuak?

Kirolean dudan helburua pelotan profesional mailan jarraitzea da eta etorkizun baten pelotako entrenatzailea izatea gustatuko litzaidake.

Itsasoa edo mendia?

Mendia

Urdina edo gorria?

Urdina

Gustuko janaria bat?

Paella

Pelikula bat?

Ez dut pelikula gustukoenik baina genero gustukoena beldurrezko pelikulak dira.

Musika gustukoena?

Brigade Loco-ren edozein abesti da.

Pizza edo pasta?

Pasta

ZEHAR ERREFUXIATUEKIN

ELKARRIZKETA

Nor zara eta zein da zure funtzioa?

Ni Olaia naiz eta Zehar errefuxiatuekin gizarte langilea naiz, normalean Tolosako zentroan egoten naiz eta orain telporalki hemen egongo naiz.

Zenbat urte daramatzu lan honetan?

Zeharren hasi nintzen orain dela 6 urte, 2018.urtean..

Noiz hasi ziren lanean Larraña etxean edo noiz sortu zen?

2018ko urria bukaeran hasi zen martxan.

Zer da Zehar?

Zehar da irabazi gabeko erakunde bat, eta errefuxiatuekin eta egoera zaurgarrian dauden etorkinekin lan egiten dugu.

Zenbat pertsona bizi dira Larrañako Zeharren?

Hemen larraña etxean momentu honetan 100 pertsona bizi dira. Gaur adibidez 4 pertsona irten dira baina bihar beste batzu datoz

Zenbat ume, emakume eta gizon bizi dira hemen?

Momentu honetan 49 emakume eta 51 gizon bizi dira, eta hoietatik adin txikikoak 29 dira.

Nolakoa da beraien egoera?

Perfil oso ezberdinak daude: adibidez umeak egunero eskolara joaten dira,helduek hizkuntza ikasten dute batzuek, beste batzuk Epara joaten dira ikastera, formakuntzak jasotzen dituzte, etorkizunean lan munduratzea prestatzen dute orokorrean.



Olaia eta Leire Larraña etxeko atarian

Hemen dauden egoiliarrak lan egiteko aukera dute?

Hemen dauden pertsonak asilo eskatzaileak direnez, ez dute lan baimenik izaten hasiera batean, prozesu luzea izaten da hori. Hemen egiten duguna da, lan baimena lortu arte prozesu horretan lagundu eta aurrez prestatzen laguntzen diegu.

Larrañan bizi diren pertsonek zer ibilbide egiten dute?

Hona datozen pertsona Espainiako gobernuak kudeatzen duen programa batetik datoz. Gure lana ibilbide horretan laguntza eskaintzea da, funtzionamenduaren nondik norakoak azaldu, osasun arretarako beharrezkoetan lagundu, lanbideko kudeaketan...

Zuk uste duzu gustora bizi direla?

Egoera oso ezberdinetatik datoz hona baina orokorrean oso egoera zaurgarriak izaten dira. Toki hau beraientzat babesleku bat izaten da, nahiz eta ez den etxe bat bakoitzarentzat, zentro bat den heinean limiteak eta arauak izaten dituzte.

ZEHAR ERREFUXIATUEKIN

ELKARRIZKETA

Zuek pozik ikusten dituzue?

Bai, azkenean egoera eduki behar dugu kontutan, pertsonak motxila oso handiekin etortzen dira eta bizipen gogorrekin. Uste dut beraientzat hau lehenengo espazio bat izaten dela behintzat arnas pixkat hartu ahal izateko, eta hori izaten da garrantzitsuena, eroso eta lasai sentitzea.

Zer jarduera egiten dituzue egunerokoan langile bezela?

Prozesu administratiboak egiten ditugu: asilo eskariak egin; poliziako hitzorduak; hitzordu medikuak; erroldak, adibidez oso garrantzitsuak dira errolda izatea beste zerbitzu batzuetara heldu ahal izateko; integratzaileek ere kasuak eramaten dituzte, zer behar duen pertsona bakoitzak. Jendearen sarrera eta irteerak kudeatzen ditugu.

Zer laguntza edo baliabide eskeitzen zaie errefuxiatuei egokitzapenean laguntzeko?

Osasun arloa, errolda, formakuntzak eta gero pertsona bakoitzak behar ezberdinak izaten ditu, orduan pertsona horri behar dituen baliabideak topatzen edo eskeintzen dizkiogu. Inguruan ditugun baliabideak pertsonaren eskura jartzen ditugu.

Zer erronka nagusi dituzue?

Hasteko jendea etortzen da karga oso handiarekin, orduan askotan lehenengo saiatu behar gara lur hartzen eta estabilitate bat edukitzen beste pauso bat eman ahal izateko. Badakigu eta konziente gara gizarte arrazista baten bizi garela eta limitazio asko topatzen ditugula: etxebizitzan, elkarrizketa batera joan eta hizkuntza ez ulertzea; azkenean, gu ez gara talde oso handia 100 pertsona daude bizitzen, orduan aurkitzen ditugu zailtasunak bidean.

Hemen lan egiteko ze ikasketa behar dira?

Lan taldean denetarik dugu, gizarte langileak, gizarte integrazioa, gizarte hezitzaileak eta konserjeak. Arlo sozialeko titulazioak dira orokorrean.



Egunerokoan psikologoak dituzte erabiltzaileek?

Programa bat eduki izan dugu non eduki izan dugun aukera kasu batzuk bideratzeko. Egia da, egonaldi hau tenporala dela eta programa horretan 6 saio izaten direla. Orduan batzuentzat motz geratu daiteke dauden denborarako. Garrantzitsua da beraientzat sentitzea gai direla egunerokotasunari aurre egiteko.

Nola kudeatzen dituzue etxe barruko krisi edo larrialdiak?

Horrelako kasuetan ditugun osasuneko baliabide guztiak erabiltzen ditugu. Larrialdietara eraman, anbulatorioa, hospitalea, etab.

Nola kudeatzen dituzue “papel gabe” datozenen osasun larrialdiak? Medikura joan daitezke?

Nahiz eta dokumentaziorik ez izan, urgentzietan beti hartatuak izan behar dira, eta gero faktura bat pasatzen dizute. Fakturak beraien izenean heltzen dira eta adibidez urgentzia batera bertaratzeagatik 241€ko fakturak heldu izan dira; edo ebakuntza baten ondoren 3000€tik gorakoak ere. Normalean Europar Batasunean hiru hilabetez egon ondoren osasun asistentzia eskatu dezakete. Erabiltzaileak etortzen direnean turismo bisa batekin etortzen dira, eta bisa horrek 90 eguneko epea izaten du, denbora hori pasatzen denean beraiek erabakitzen dute bertan geratzea modu “irregular” batean geratzen direlarik, eta beraz doako osasun asistentzia ez dute bermatua izaten.

Saturio ibaian barrena



Natur Ekintza zikloko ikasleak natura inguruneko eta aisialdiko gidaritza ikasten dabilta eta hainbat jarduera egiten dituzte eskolaz kanpo ikasitako edukiak praktikan jartzeko. Egin duten azken irteera Elgoibarrera izan da. Bertan arroila jaitsiera egin dute Saturio ibaian.

Arroila jaitsiera abentura kirol bat da, eskaladan erabiltzen diren jaitsierako teknikak erabilia mendiko ibaien ibilbideetan behera jaistean datza, eta lekuaren arabera ibiltzen, rapelatzen edo igerian egiten dute ibilbidea. Talde guztia ondo prestatuta irten zen Oñatitik, beharrezko material dena motxiletan hartuta: neoprenozko trajeak hotzetik babesteko; oinetako itsaskorrak ez irristatzeko; uretan sartu ahal izateko motxila zuloduna; arnesa, ainguraketa-sokak, mosketoiak eta beharrezko denak segurtasuna bematzeko; soka erdiestatikoak; eta burua babesteko kaskoa eraman dituzte beraien lana egin eta ondo pasatzeko asmoz.



Arroila jeitsieran sokak jartzen



Arroila jeitsieran sokak jartzen



Arroila jeisteko beharrezko materiala



Arroila jeitsieratik bueltan

EGUN BAT YISMELTH-EKIN

Otsailaren 13an Zeharrera joan ginen, errefuxiatuentzako harrera-zentrora, zentroko errefuxiatu baten egunerokotasuna ezaġutzeko.

Zorionez, Yismelth izeneko emakume eder bat ezaġutzeko aukera izan genuen, berarekin goiza pasaz eta beraien eguneroakoaren berrri izanez.

Yismelth 28 urteko emakumea da, 2 seme-alaba ditu eta ia 5 hilabete daramatza Larrañan bizitzen. Venezuelan jaio zen, eta bere bizitzako momentu batean, Kolonbiara bizitzera joatea erabaki zuen. Arazo pertsonal eta ekonomikoengatik Madrilera joan zen. Madrilen laguntza eta babesa eskatu zituen, eta Oñatin babestu zuten.

Yismelth-en eguna **goizeko 7etan** hasten da esnatu bezain laster bere seme nagusia altxatzen du. Semea eskolara joan baino lehen, gosari goxoa prestatzen dio jantoki sozialean, eta semea eskolara eramaten du. Horren ondoren, seme gazteena altxatzen du eta haiek gosaltzera joaten dira.

10:00-10:30 aldera, euririk egiten ez badu, jolastera jaisten dira parkera, baina euria egiten badu, hemen geratzen dira zentroan. Seme gazteenarekin jolasten egoten den bitartean, bere betebeharrak egiten saiatzen da. Adibidez, irakurri, zentroko jendearekin egon eta denbora ematen diona.

Gero, **11:30etarako**, eskolara joaten dira seme zaharrenaren bila. Paseo bat ematen dute eta normalean medikutik pasatzeko aprobetxatzen dute. Baina medikurik ez duten egunetan aprobetxatu egiten dute, eta paseoa luzeagoa egiten dute zentrora bidean.

EGUN BAT YISMELTH-EKIN

13:00-13:30 Jantokira joaten dira hirurak elkarrekin bazkaltzera, bazkaltzen dute eta eskolarantz abiatzen dira berriro seme nagusia klasera eramateko. Eraman ondoren, aprobetxatzen du enkargu batzuk egiteko.

16:30-17:00 Eskolara joaten dira haren bila, eta afalordura arte elkarrekin pasatzen dute arratsaldea.

20:00-20:30 Afaldu eta dutxatu egiten dira, goiz oheratu ahal izateko.

21:30-22:00 Ipuin bat irakurtzen die eta oheratzen amaitzen du.

Ondorioz, Yismelth oso emakume indartsua eta borrokalaria da. Ama ezkongabea eta bi seme-alaba izanik, bizimodu hobe baten bila etorri dena.



Aarekin sortutako irudia

LANGILEAK EZAGUTZEN

ELKARRIZKETA

Larraitz Barandiaran Larraña Lanbide Heziketa eskolako langilea da. Goiz batean elkarrizketa egin genion.

Zein da zure lana?

Idazkaria naiz, bai Zuazolako eta bai Larrañako diru kontuak eta dokumentuak, notak, bekak, tituluak, etab. kontrolatzen ditut.

Denbora librean zer egiten duzu?

Kalera atera, lagunekin ekintzak egin, denbora pasa, hitz egin.

Noiz egiten duzu lana?

Astelehenetik ostiralera. Astelehenetik ostegunera goiz eta arratsaldean egiten du lana, ostiraletan berriz goizez egiten dut.

Nongoa zara?

Ordiziakoa naiz.

Zenbat denbora tardatzen duzu Ordiziatik eskolara?

Ordiziatik Oñatira 30km daude, 30 minutu inguru tardatzen dut.



Larraitz bere bulegoan lanean.

Zenbat denbora daramazu eskolan?

12 urte daramatzat Larrañan.

Zer ikasi zenuen idazkari izateko?

Irakasle moduan etorri nintzen, mekanikako irakasle gisa. Ikastetxera etorri eta laster hasi nintzen zuzendaritza taldean lanean, idazkari gisa.



Ikasleak elkarrizketa egiten



NORA JOANGO ZARA?

Erasmus programa 1987an hasi zen. Europar Batasunaren ekimena da ikasleei ikasketak beste herrialde batean egitea ahalbidetzen die. Nahiz eta hasiera baten unibertsitateko ikasleentzat prestatutako programa izan, gaur egun hedatu egin da, eta unibertsitatez kanpoko ikasleei ere aukera eskaintzen zaie atzerrian ikasi eta beraien ikasketa prozesua a

Erasmusera joateko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Jarrera ona duten ikasleek izaten dute aukera programa honetan parte hartzeko, honez gain nota onak izateak ere laguntzen du.

Lanbide heziketan Erasmusera joateko aukera Hasierako Lanbide Heziketan, Erdi Mailan eta Goi Mailan izaten dute ikasleek, zikloetako 2.mailan joan ohi dira.

Urte guzti hauetan ikasle askok parte hartu izan du Erasmus programan, Europako lurralde desberdinetara joanez. Baina, zeintzuk dira jendearen leku gogokoenak?

- **Italia (7.100 ikasle)**
- **Frantzia (1.639 ikasle)**
- **Alemania (3.216 ikasle)**
- **Portugal (2.221 ikasle)**
- **Polonia (1.750 ikasle)**
- **Belgika (1.651 ikasle)**
- **Holanda (1.251 ikasle)**
- **Suedia (1.000 ikasle)**

ERASMUS ETA LARRAÑA

Azken urteotan Larrañan aritutako hainbat ikaslek parte hartu izan du Erasmus programan. Aurtengo kurtsoan esaterako Hasierako Lanbide Heziketako bi ikasle joango dira Italiara, eta daogeeneko erdi mailako 5 ikasle eta goi mailako 2 ikasle Europa aldean dabilta beraien abentura bizitzen.

Lander Garitanori elkarrizketa

Aurreko kurtsoan Erasmusera joan zen Lander Garitanori elkarrizketa egin diogu, bere esperientzia ezagutzeko eta datozen urteetako ikasleak animatzeko.

Noiz joan zinen erasmusera?

2024. urtean

Eta nora?

Maltara joan nintzen

Gustatu zitzaizun esperientzia?

Bai oso esperientzia polita izan zen.

Gomendatuko zenieke beste ikasleei?

Bai,gomendatuko nieke, gauza asko ikasteko aukera ematen duelako. Esaterako hizkuntza berri bat ikasteko aukera izan dezakezu, edo lehendik dakizun bat hobetzeko; leku berriak ezagutzen dituzu eta independenteago izaten ikasten duzu.

Zer ikasi zenuen Erasmusean?

Programa honek independenteagoa izaten irakatsi dit. Gainera, kultura bakoitzak bere historia eta tradizioak ditu, eta horiei buruz ikasi dut.